

Funtsezko baliabideak

Gure proiektua martxan jartzeko behar dugun dirua lortzeko bi bide ezberdinez baliatuko gara: Lehenengoa, taldekideok egingo dugun hasierako inbertsioa izango da. Bestea, Osakidetzarekin dugun elkartea dela eta diru laguntzak jasoko ditugu proiektua aurrera eramateko.

Beste alde batetik, gure kutxa automatikoa diseinatu eta fabrikatzeko enpresa espezializatu batekin lan egingo dugu, makinak guk eskatutako betebeharrak bete ditzan. Hau kontutan izanik Tecnichapa Velatia enpresa aukeratu dugu, horrez gain enpresa honekin lan egiteak banatze prozesuko gastuak murriztuko lituzke lgorren baitute fabrika bat.

Azken honekin lotuta, banatzaile bat behar dugu gure proiektua garraiatzeko. Enpresa garratzaile honek ahalmena izan behar ditu hainbat makina momentu berean garraiatzeko,

Horrez gain, kutxen matxura eta arazoei aurre egiteko teknikariak behar ditugu. Hauek espezilizatuta egon beharko litzateke makinaren funtzionamenduan eta bere konponketan.

Azkenik, webgunea diseinatzeko informatiko bat beharko dugu. Diseinatzaile honek guk eskeinitako prezioan gure beharak asetzeko gai izan behar da. Diseinu sinple eta intuitiboa izan beharko da erabilpena errazteko. Gainera, enpresarako hainbat ordenagaiu erosi beharko ditugu webgunetik jasotako arazoei buruzko mezuak jasoteko.